

[4]

1970 - Jda

(5)



Z E R N U N

I.	Irakasleak Loiolan	...	1 or.
II.	Irakurketa	...	5 "
III.	Bilinguismoa (Jon San Martin-ek)	...	9 "
IV.	Haurren Hizketa eta Literatura (Anjel Lertxundik)	...	14"
V.	24"
VI.	Esku - lanak	...	27"
VII.	Abestia	...	29"



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

IRAKASLEAK LOIOLAN

Uztailaren 16-24 (Neska eta mutilak)

1º Edukazioa - heziketa- ez da jakintza mordo baten jabe izatera heltzea.

-Espansio eta askatasuna lortzea da.

-Orduan gertatuko ditugu biharko gizonak.

2-en.-Heziketa, dotrina lako akasketan aurkakoa da.

-Ez dugu orain definitu behar biharko he-
urra.

-Ez dugu hezi behar gaurko gizartea aurre-
ra ateratzeko.

-Biharko gizartea araikitzeko kapaz iza-
teko baizik, bere izatea eta nortasunaren ga-
rantia bezela.

-Dogma hutsezinei lotu gabea behar du.

-Haurrak responsableak izan daitezcan: Arra-
zakeria, gerra eta esplotazio molde guztiak
baztertuko dituen gizartea bat eraikiaz.

-II-

H A U R R A K

1º.- Haurrak ez dira pentsatzen dugun

1º.-Lehengo eskola tradizionala eta ga-
ur egungoaren arteko oposizioa.

2-3n.-Batetik: pedagogia berri baten es-
kakizun berriak; irakaskintzako ritmu eta es-
trukturen aldaketa; irakasle eta ahurrak kon-
tzientzia berri batetara eramatea.

-Bestetik:lehengo autoritarismo eta magis-
tralismoaren jarraipena.

3-en.-Bata, lehendabizikoa alegia, irakas-
leena izan zela, andereñoena, soilki, bestea.

Hortarako:Sistema eta administrazioe
aren babesa bilatzea, irakasle "laikoak" sakri-
fikatzeko, defenditu behar lituztekean bitartean.

4-3n.- "Gurasoen" reakzio gogorra hasie-
ran; batzuek begiak irekitzea eta gehienak kon-
forme, gero.

-IV- H U R R E N G O R A K O

1º.- Gazteak politikan sarturik daudela
eta; sesual gauzetan lasaiak dirala-eta, drogak
hartzen dituztela-eta...esan diranak esanaz,
negar egitea hipokrita jarrera dala. ^LEta are
gehiago, zaharren ahuleria ez bada bien bitar-
tean sozial eta politikan aztertzen; eta egun-
go kondizio edo bizi moldeak aldatu nahi eza

bezain errudun eta akasdun.

-Baldin akats asko badute, erru asko egi-
ten badute, deus esaten ez badute, lanik egin
nahi ez badute... gure pedagogia moldeak guztiz
pobreak diralako da.

2-3n.-Behar da autoritarismoa erabat
baztertu.

-Berdin, saria eta zigorra; ahorra, lana
egiteko edo ez egiteko enfrentatzen dutelako.

3-en.-Garai batetan irakasleak zekien
dena; haurrek deus ere ez. Egun, haurrek ere
dakite, eta asko jakin ere.

4-en.-Haurrek:jakin egin hahi dute, gau-
zak ulertu, egin.

-Beren interesa landu behar hortarako.

5-3n.-Obserbazio eta esperientziaz ika-
siko dute.

-Hamarretatik bederatzi sobera daude espli-
kazioak.

6-en.-Haurrek lana egin nahi dute. Bai-
na, ez egiteagatik, edo beste zernahi dela
ere, arrazoiturik behar du izan.

baldin bada, edo gazteak eta haurrak politika eta sozial giroari begira osatu nahi ez bada.

2-3n.-Autoritatean oinarriturik zegoen (eta dagoen) hezibidea baztertzeke garai etorri da.

Beste molde hauek behar ditugu:

-Ez, esaten edo agintzen dena beste gabe egin; baizik-eta zer egiten den jakin.

-Arrazoiatzen ikasi.

-Kritikatzen, eztabaidatzen, elkarrizketan.

-Erabakiak hartzen.

-Hautatzen jakin ahal izateko nor izan.

-Orduan egin ahal izaneren diogu aurka teknokrazia eta mistizismo utopiko honetan oinarriturik den gizarte honi.

3-en.-Heriotzako ordua jo du "ordena" deitzen zen lehengo topiko zaharrarentzako: talde baten heriotzako ordua, bere sustrai ekonomiko eta izpirituzkoak usteldu diranez gerroztik. Izan ere, dominatzeko instintoa izan zuten horiek heriotzabide eta indar berri edo hobeago batzuek dela medio gaineztaturik gertatu dira.

(Anjel Lertxundi)

II

IRAKURKETA

Irakurketarako interesgarriak diren puntu batzuek jarriko ditugu lehen bizi:

- Bokabularioa (hiztegia)
- Euskera batua
- Motibazioak
- Marraskia eta hizkera

1- Haurraren lehenbiziko urtetarako egin beharrik garrantzitsuenetakoa ezagutzen duen gauza bakoi-tzari izena jartzea da. Hau da: hiztegia aberastu.

Hau aurrera eramateko, guk haurrari giro bat eskainiko diogu. Adibidez: soroko gauzek baditu harat eramango dugu eta ez gera hotz-hotzetan izen pilo bat irakasten ihardungo ikastola barruan.

2- Ikastolan hasten denetik euskera batua erabiliz tzea oso beharrezkoa ikusten dugu. Handietan bata-sun hori literaturan izatea aski derizkiogu, baina haur ttikiekin ahozkoa ere ahal denik eta gehien erabili behar lukete. Horrela hizteko eta irakur-tzeko garaian hitz horiek etxeakoak egingo zaizkio, bestela arrotzak.

3- Ezin dugu guri gogoak ematen daukulako edo gurasoen zer-esanagatik irakurtzen eta ikazten hasi Haurrak berak ikusi behar du beharrezkoa. Hori lortzeko, denbora batean hori deskubritu erazten saiatuko gara. Batzuekin lan gehiago egin beharko dugu.

Beste herrietako haurren berri jakiteko idazten diren eskutitzak oso motibazio ona izan diteke.

Ipuinak ikusteko zaletasuna duenez, irakurtzeko gogoia ere erraz hartu dezakete.

Bostetik seirako urte hori ona dela uste dugu irakurtzen eta idazten asteko, lehenago hasteak kalte asko ekarri dezakela derizkigu, ez bait du izango lehenago aipaturiko preparaziorik.

4- Marrazki libre asko egiteak, asko lagunduko dio haurrari idazteko garaian. Ez bakarrik espresioari buruz, baita eskua landua izateari buruz ere. Berak buruan egiten duen imajina eta arkatzaren bidez ateratzen den marra hori, lotuta doaz; eta lan hori, zenbat eta gehiago egiten duen orduan eta gehiago lotzen doa.

Gero idazteko garaian errezagoa da neurri bartzuetara **kötzeá**.

ZER DA IRAKURKETA?

Irakurketa espresio bide bat izan behar du.

Haurra ttikia zenean marrazkiaren bidez espresatzen bazen hitzez geroago, ezkenez idatziz espresatuko da.

Segers-ek "Metodo de Enseñanza de la lectura" n jartzen duen bezala, oso lan garrantzitsua eta haurrari esfuerzo handia eskatzen diona denez, kontu handia izan behar du honek.

Berak dionez konkretotik asi eta, abstraziora iritxiko da.

KONKRETOA.- Haurrak berak erabiltzen dituen frase laburrak, abesti zatiak, beretzat esan nahia osoa duen frasea, hori idatzi eta irakurri behar du.

ABSTRAKTOA.- Frase hori hitzetan ebakitzen joatea, hitz hori silabetan, askenez letra bakoitzera helduko da.


Lehen aipaturiko liburu hortan dion bezela, haurrari ikusmena entzumena baino lehenago desarrollatzen zaio.

Hori base bezala Harturik, haurrak lehenago ikasiko du hitza, osoa jarrita ikusten badu, hitz baten silaben hotsak ikasi ondoren baino. Adibidez: Guk jartzen diegu TXORIA, berak esaten du eta idatzi ere bai, ez ahal da hori errazago, TXO - TXE - TXI - TXA - TXU eta beste baten RA - RE - RI - RO - RU ikasten ibili eta gero hoirik josten baino.

ZER DA BERETZAT TXA?

Baina TXAKURRA zer dan eta nolakoa dan badaki;
ez ahal da hori aski TXA ikasteko?

Lehenbizi hitz batzuk ikasiko ditu, berari gehien
gustatzen zaionak edo gehien esten dionak, hortik
besteak ateratzen joango da.



III

BILINGUISMOA

Sarrera.- Bilinguismoari buruz hitzaldi bat ematea ez da hain lan gaitza. Zaila, zera da, nola burutu bilinguismoa, nola mamitu praktikan. Lan hori ezin batek bakarrik egin, talde baten lana bait da, eta denetarik behar talde horretan: pedagogo, sikologo, soziologo eta linguista.

-I- Erakunde problema.- Ez bakarrik ikastolatan, baitare beste gure arteko zenbait lanetan. Euskaldunon gaitza ote?

Erdal-idazle batzuek dioten iritzia: euskaldunok anarkiko samarrak garala, eta indibidualistak. Ez dut uste egia denik hori. Adibidez, Espainia-ko Bankak, S.A. eta Kooperatiba-elkar-teak hasiera Euskal-herrian izan dute. Eta zenbat industria-lantegi eraiki dira gure lurrian azkenemende honetan bertan. Bistan da, lan-mota hauek bakarka egiteko lanak ez dirala. Elkarteko lana eskatzen dute.

Bestalde, ez gaude jakitunen faltan ere.

-II- Unesco eta bilinguismoa.- Nere azterketak hemen bilinguismoari buruz Unesco-ren arabera doaz. Ez inolara Karlos III-naren sasoinen Espainian eginiko legearen arabera ez-eta Villar Palasi-ren iritzietara bilduaz ere.

Suizak egin du mendeetan zehar bilinguismo-molderik egokiena.

-III- Zenbait puntu.- Bilinguismoaren legean, ene ustez, kontuan eduki behar lirakean zenbait puntu:

a) Talde lana eta baliozko jendea sartzea lan honetan.

b) Bulego baten beharra. Lana sakonki egin ahal izateko, hortan soil-soilik ihardungo den jendea. Bestenaz, amateurismo batean ibiliko gara, eta konponketak egiten beti, edo arabakiak ezartzen. Aipatu du baita zer kalte ekartzen duen bulegokoak ideoloji berezi bateko izateak.

d) Egitura bat. Etxe bat eraikitzeak igeltsero, harotz, arkitekto, etab, eskatzen dituen bezala, berdin lan hau aurrerat eramango bada, Fabriketan zuzenketa bat izan ohi den bezala, edo herri-elkarte bateko erakundearen gisa.

e) Luzarora begira egin behar den gauza. Orainari erantzunaz eta bakoitza lan batetan sakonki arduratuaz.

f) Lehen, oraindaino, zer landu izan den

III

BILINGUISMOA

Sarrera.- Bilinguismoari buruz hitzaldi bat ematea ez da hain lan gaitza. Zaila, zera da, nola burutu bilinguismoa, nola mamitu praktikan. Lan hori ezin batek bakarrik egin, talde baten lana bait da, eta denetarik behar talde horretan: pedagogo, sikologo, soziologo eta linguista.

-I- Erakunde problema.- Ez bakarrik ikastolatan, baitare beste gure arteko zenbait lanetan. Euskaldunon gaitza ote?

Erdal-idazle batzuek dioten iritzia: euskaldunok anarkiko samarrak garala, eta indibidualistak. Ez dut uste egia denik hori. Adibidez, Espainia-ko Bankak, S.A. eta Kooperatiba-elkar-teak hasiera Euskal-herrian izan dute. Eta zenbat industria-lantegi eraiki dira gure lurrian azkenemende honetan bertan. Bistan da, lan-mota hauek bakarka egiteko lanak ez dirala. Elkarteko lana eskatzen dute.

Bestalde, ez gaude jakitunen faltan ere.

-II- Unesco eta bilinguismoa.- Nere azterketak hemen bilinguismoari buruz Unesco-ren arabera doaz. Ez inolara Karlos III-naren sasoinen Espainia-n eginiko legearen arabera ez-eta Villar Palasi-ren iritzietara bilduaz ere.

Suiza¹k egin du mendeetan zehar bilinguismo-molderik egokiena.

-III- Zenbait puntu.- Bilinguismoaren legean, ene ustez, kontuan eduki behar lirakean zenbait puntu:

a) Talde lana eta baliozko jendea sartzea lan honetan.

b) Bulego baten beharra. Lana sakonki egin ahal izateko, hortan soil-soilik ihardungo den jendea. Bestenaz, amateurismo batean ibiliko gara, eta konponketak egiten beti, edo arabakiak ezartzen. Aipatu du baita zer kalte ekartzen duen bulegokoak ideoloji berezi bateko izateak.

d) Egitura bat. Etxe bat eraikitzeak igeltsero, harotz, arkitekto, etab, eskatzen dituen bezala, berdin lan hau aurrerat eramango bada, Fabriketan zuzenketa bat izan ohi den bezala, edo herri-elkarte bateko erakundearen gisa.

e) Luzarora begira egin behar den gauza. Orainari erantzunaz eta bakoitza lan batetan sakonki arduratuaz.

f) Lehen, oraindaino, zer landu izan den

aztertzearen beharra. Adibidez, edozer gaietan delarik ere, derriorreko historiari behatu bat ematea eta bibliografiaren berri jakitea. Esaterako, Barandiaran, M&txelena...Urkixo.

Hontan, Urkixo, langile on eta eredutzat ipini du: talde handi bat mugitu du, dela Literatura azkartzeko, dela Kultura-zientzia egiteko, etab. bakoitzaren pentsa-moldea ikuspegi zabalez begiraturik.

-IV- Guraso hizkuntza.- Gaur egun, nonahi dela ere, guraso hizkuntzak gero-eta estimagarria go gertatzen ari dira.

"Guraso Hizkuntza" izenez Unesco-k argitaratu zuen liburua katalanera berehalako batean emane izan zen, ez ordea espainieraz, oztopo jarri bait zitzaion.

Behar dute irakurri liburu hau euskal-irakasle denek.

Gaia.-Gurasoen hizkuntza, eta zer-nola konpontzen dute bilinguismo-arazoa...

-Suizan, mila urte hauetan lau hizkuntzadun herria denez gero.

-Suezia eta Dinamarkan, hamaika urtetaraino nor bere hizkuntza lantzen du, eta gero, bertakoarekin batera ingelesa.

-Alemanian, eskualde edo estadu bakoitzeko hizkelgiak onarturik, nola egiten den, alegia, guztiekiko alemanera literarioa.

-Errusian, ofizialaz gain beste asko.

-Azkenik, hizkuntza bakoitzaren nortasuna aitortuaz eta haurrak 11 urte-taraino hori landuaz handik aurrerat lengua franca edo delakoa ikasi beharko luke.

Beraz, hona zer esan nahi dudan oinarritzat Unesco eta ez Villar Palasi hartu behar dela esatean.

-V- Jokabide eskasak.- Organizatze zentzu bat ez dugulako, edo antolakizun bat ez izatetik sortzen dira. Gero, kasu batzuek aipatu ditu adigarritzat:

"Protección a las minorias" delako liburua eta Euskal-zaindiko baten ordezkari baten jokabide eskasa alegia.

-Botanikan Lakoizketak eginiko lana eta Margo Ederdun-edo jokabidea.

Beraz, lehenbizi bila behar dena: oraindaino zer egin den ikastea. Gero, besteetan egin dutena ikusiz gero bilinguismoa nola aplikatu gemen, eta horrela moldatu hemengo arazoa.

Oharra: Ondoren organigrama bat azaldu du

eta bilinguismoari buruz baino gahiago mintzatu
da irakasleak organizazio aldera eragiten.

(Jon San Martin-ek Loiolan 70 - 7 - 22-an.)



IV

HAURREN HIZKETA ETA LITERATURA

Oharra: Aldizkarian osoki argitaratzeko sobera luzea denez gero, laburki emanen dugu.

I.- ESTETIKA.-

Hizkuntzaren eremuan sartu baino lehen "Estetika" aipatzen du eta honek duen garrantzia.

-Ez, noski, dirua irabazi ahal izateko, ez bait dirudi beste baliorik ba denik burges-moldeko gure mundu honetan.

-Bai, ordea, estetika:

1) Ekilibrio-bide dugulako. Munduarekino eta pertsonetikiko har-emana behar da; teknikaren bidez bezala menperatzeko ez-baina, elkarrizketa sortu ahal izateko, bai mundua eta bai gizonekin. Hontan, kapitalismoa eta marxismoa etaparatzen ditu:

a) Kapitalismoan:

-Gizona, gizona zapalduaz, menderatuaz agertzen zaigu.

-Gizona, azadia zapalduaz, mederatuaz agertzen zaigu.

b) Marxismoan:

-Gizona, gizonarekin har-emanetan.

-Gizona, izadiarekin har-emanetan.

Eta har-eman honetan berritze-lan bat burutu behar da, alegia, izadia, gizona, ingurua berrituaz neu berritzera jo behar da.

2) Gizonak osoa izan nahi duelako.

Gizona ez da, berez, izaki bakartia; derriorrenko du har-emana: bererekiko, izadiarekiko, gizonarekiko, eta estetika izango dugu har-eman hauek zaintzen erakutsiko daukun maisu harrigarria. Estetika ez da doinu edo olerki edo e kultura eder batzuek sortzea, ez-eta sortzen jakitea, norbera "erti-lan" bihurtzea baizik. Horrela, Leonardo da Vinci-ren "Gioconda" oso arte-lan ona bada ere Leonardo bera dugu ertiaren ekintzarik onena.

Lan hau bera erlijioak edo politikak egin lezakela aitortu behar da, baina beste maila batzuetan.

3) Estetikak askatu egiten gaituelako.-

Bertoldt Breht-en hitzak harturik, adieraz liteke askatasun honen berri: "Estetikak, lehenik, adimenaren poza biztu behar du, eta errealitatea arraberritzearen atsegina erakutsi herriari. Behar du prestatu gure jendeak, Prometeo nola liberatu zen ikusteko ez ezik, nor bere burua liberatzearen poza edukitzeko ere. Asmatzaileak eta hatzemaileak senti ohi duen gustu eta gozamina desta-

tzen erakutsi behar diegu estetikaren bitartez, hots, liberetzailearen garaipen zentzua dastatzzen".

Estetika beraz, ertia bera baino lehenagoko mailan dugu. Estetika, gainera, askoz zabalagoa dugu. Hona eskema bat argibidetzat:

E S T E T I K A

ERLIJIOA

ERTIA

POLITIKA

GIZONAK ETA IZADIA

Azkenik, estetikari buruz, dio, gauza praktikorik eman ez-baina, arazoa, kezka, buruhaustea, ezinegona sortu nahi ditugu. Besterik ez.

Eta galdera bat: nola irakatsi literatura (berdin erlijioa, musika...) neuk lehenik, literatura, kasu honetan, sentitzen eta gozatzan ez badakit?

II.- HAUR-OLERKIA.-

Astelehenean Imanol Urbietak egin zeukun bereizketa bera egiten dautzuet haur-literaturaz ere: Pre-literario maila eta literario maila baina ez doaz musikaren maila bien parean, halere.

1.- Pre-literario maila.-

Eta maila honetan onomatopeiak duen garrantzia agertzen du. Horrela, "Teoria del Lenguaje" delako liburua gomendatuaz, alfabetoko letra konsonanteak bereizten ditu:

- Guturalak: g, j, k = Eztatariarekin.
- Labialak: p, b, f = Ezpaineekin.
- Dentalak: t, d, z = Hortzekin.
- Nasalak: m, n = Sudurrarekin.
- Likidoak: l, r = Ahoaren goi-aldearekin.
- Sibilanteak: s, ts = Xistuka esaten direnak.

Gero, konsonanteen klasifikatzea gogoan izanik, bokalena egiten du: -Gauza irekietarako, ipuin-gisa eginiko abestietarako A eta E dira egokiak.

-Eta I berriz, gauza lehunak esateko, edo sorgin dantzetarako ere.

-Harridurazko zerbait, edo gauza miresgarri bat adierazteko O erabiltzen da; baitare, beste bokalei laguntzeko.

-Eta U guztiz barnekoia dugu, gauza samurrak adierazteko da.

Adibidez: Kriskitin-Kraskitin delako gure onomatopeia horren orde, Krasketen-Kraskaton ipiniko bagenu, besterik litzake, "O" ez zai-
gu-eta goxotasunerako prestatzen, eta beraz, inola ez dagokio "Donostia-ko hiru damatxo" abestiaren goxotasunari horrelako aldaketarik.

Erderazko "Cuando Fernando Septimo" delako dakar beste etsenplutzat. Lehendabizikoan, dio, Ak oso joko irekia du; gero, O eta Uk oso

hertsia, barnekoia; E eta I erdibidean gelditzen dira.

Azkenik, arau praktiku batzuk ematen ditu onomatopeiei buruz, alegia, zer-nola bokalak konsonanteekin taxuz uztartu.

-Guturalekin= A erabili behar da.

-Labialekin= E, A, I, O, U.

-Dentalekin= A, E, I, U.

-Nasalekin= Bostak.

-Likidoekin= A. Adibidez: Lara-la-la-..

Dena dela, bistan da, onomatopeiak zer garrantzia duen haur ttikiarentzat, hitzak eta silabak hautxi-mautsika ezin ebakirik dabilen sasoinen.

2.- Literario maila.-

Hiru-sei urte bitarteko haurren literario maila esan nahi da.

Lehenik, inola ahaztu ez litekeana da onomatopeia adin honetan ere; eta astiro-astiro rituari lotzen bazaio, are gehiago. Horixe baizik bai ahal da, bada, "Apaindurazko olerkia?" Puntu honetan arras interesgarri gertatzen da "Ahozko literatura" delako M. Lekuonaren liburua.

Apaindurazko olerkian hitzak eta bertsoak ez dute ideiazko lotura gehiegirik; baina bai ordea, ritmu eta onomatopeia baloratzen badugu, bere heinean. Adibidez, gogoratu: Tun-kurrun kutun-kun" eta bere ritmu binarioa.

a) Hitza.- Halere, hitzak du literario mailan lekuri bereziena. Zenbait hitzek mundu bat adierazten die haurrei. Ikus ditzagun horrelako batzuek:-Sendiko hitzak: Aita, ama, aitona, amona (Haurra adin honetan, hiru urtetan oraino ez da senideengana ireki eta zabaldu. Bere gaindik daudenei soilki behatzen die haurrak, bera baino handiago direnei).

-Joko hitzak: Tutu, pelota...

-Janariak: ogia, goxokiak...

-Izadia: Eguzkia, ilargia, mendiak, itsasoa.

-Etxe-abereak: Xakurra, katua, xoria, astoa
(Geroago joko du basa-abereetara: lehoia,..)

b) Errepikatzea.- Dela ipuin, dela kantu edo olerki, aski laburrak izan behar dute haurrarentzat, atsegin zaie-eta behin eta berriro gauza bera esatea. Ez dira aspertzen. Lehengoak berri-
tu nahi ditu, lehen ikasiak gogoratu. Horregatik, adin honetako haurrek ez dute ipuin luzerik maitate izaten; are gutiago, gure pentse-moldeetan eginak badira.

Eta "Sarean zun zun" abestian gertatzen den bezala, nahiz-eta eztruktura oso laburrekoa izan, irekia denez eta amaitu ezinekoa, guztiz da interesgarri haurrarentzat. Berdin gertatzen da erderazko: "Había una vez un barco chiquitito..... delakoan. Ez du ipuinik, baina guztiz irekia da, eta hau aski zaio haurrari.

Alabaina, kontuz ibili behar da ideai batetik bestera salto handiegia ez egiteko. Hala nola: "Errekaldean lizarra
hari begira lizarra
euskera salbu ikusi arte
ez dut moztuko bizarra.

Salto hauetarikoa edozein haurrarentzat konpreni ezina da.

d) Bigungarri edo diminutiboak.— Ez ditu gogoko. Aski kezkaturik dugu haurra ttiki-izateaz. Haurrak handi eta heldu ikusten ditu aurrekoak, eta berak ere handia ukan nahi luke.

e) Bizidun egitea: edo animismoa deitzen dena. Ez da besterik, gauzak, izakiak bizitzaz kaztea, arnasdun bihurtzea. Eta honek sekulako garrantzia du haurraren baitan.

f) Artifizialismoa.—Gauza guztiak gizonak edo honen gisako den norbaitek eginak dira. Mendiak harriak hazi diralako sortuak dira. Aintzirak, hibaiak, etab. zulatuak izan dira eta norbaitek bete ditu urez. Haurrek horrela pentsatzen dute beste zenbait gaietan ere.

g) Giztegiaren osaketa.— Haurrak gauza bakoitzari bere izenez deituko baldin badio, hiztegia landu behar du. Nola?

—Mailaka abestian bidez.— Kantu egokirik ba da gurean hortarako. Adibidez: "Akerra ikusi dugu, Xoxoak galdu du mokoa, Astotxoa, etab.

a) Hitza.- Halere, hitzak du literario mailan lekuri bereziena. Zenbait hitzek mundu bat adierazten die hurrei. Ikus ditzagun horrelako batzuek:-Sendiko hitzak: Aita, ama, aitona, amona (Haurra adin honetan, hiru urtetan oraino ez da senideengana ireki eta zabaldu. Bere gaindik daudenei soilki behatzen die haurrak, bera baino handiago direnei).

-Joko hitzak: Tutu, pelota...

-Janariak: ogia, goxokiak...

-Izadia: Eguzkia, ilargia, mendiak, itsasoa.

-Etxe-abereak: Xakurra, katua, xoria, astoa
(Geroago joko du basa-abereetara: lehoia,...

b) Errepikatzea.- Dela ipuin, dela kantu edo olerki, aski laburrak izan behar dute haurrarentzat, atsegin zaie-eta behin eta berriro gauza bera esatea. Ez dira aspertzen. Lehengoak berri-tu nahi ditu, lehen ikasiak gogoratu. Horregatik, adin honetako haurrek ez dute ipuin luzerik maitate izaten; are gutiago, gure pentse-moldeetan eginak badira.

Eta "Sarean zun zun" abestian gertatzen den bezala, nahiz-eta eztruktura oso laburrekoa izan, irekia denez eta amaitu ezinekoa, guztiz da interesgarri haurrarentzat. Berdin gertatzen da erderazko: "Había una vez un barco chiquitito..... delakoan. Ez du ipuinik, baina guztiz irekia da, eta hau aski zaio haurrari.

Alabaina, kontuz ibili behar da ideai batetik bestera salto handiegia ez egiteko. Hala nola: "Errekaldean lizarra
hari begira lizarra
euskera salbu ikusi arte
ez dut moztuko bizarra.

Salto hauegarikoa edozein haurrarentzat konpreni ezina da.

d) Bigungarri edo diminutiboak.- Ez ditu gogoko. Aski kezkatu dugu haurra ttiki-izateaz. Haurrak handi eta heldu ikusten ditu aurrekoak, eta berak ere handia ukan nahi luke.

e) Bizidun egitea: edo animismoa deitzen dena. Ez da besterik, gauzak, izakiak bizitzaz jatztea, arnasdun bihurtzea. Eta honek sekulako garrantzia du haurraren baitan.

f) Artifizialismoa.-Gauza guztiak gizonak edo honen gisako den norbaitek eginak dira. Mendiak harriak hazi diralako sortuak dira. Aintzirak, hibaiak, etab. zulatuak izan dira eta norbaitek bete ditu urez. Haurrek horrela pentsatzen dute beste zenbait gaietan ere.

g) Giztegiaren osaketa.- Haurrak gauza bakoitzari bere izenez deituko baldin badio, hiztegia landu behar du. Nola?

-Mailaka abestian bidez.- Kantu egokirik ba da gurean hortarako. Adibidez: "Akerra ikusi dugu, Xoxoak galdu du mokoa, Astotxoa, etab.

-Hitzen jokoa bitarteko.- Ikus hortarako "Euskalerriaren iakintza" delako Azkueren obra. Etsenplu: Akerrak adarrak okerrak ditu. Okerrak akerrak adarrak ditu. Adarrak...

-Zenbatzeko olerkiak.- Adibidez: Dona, dona, katona...

-Ni-tik sozializaziora: pasatzen lagundu behar da haurra. Haurrak hiru urtetan arras berekoiak dira: gauza guztiak bere eta beretzat eginak. Ni ordeztu, Gu erakutsi behar zaio ahal den neurrian, baita mintzatzen eta kantuan ari denean ere.

Horiek hola, olerkariak oso maila ttikian behar du olerkari izan, baina musikalariekin batera lan egitea beharreko du. Eta, jakina, haurraren izakera ezagutzea nahi-eta naiezko.

a) Haurraren: mundua, hizkuntza, hazkuntza. Eta bihozkeria, irudimena...

b) Guk, pedagogo bezala, haur horrek zer premia dituen ezagutu behar dugu, gero.

d) Hortarako behar diren dedioak ipini.

Hiru jokabide har litezke haurrarenentzako:

1) Zer de haurra. Eta den hortan utzi: Rousseau.

2) Zer nahi dugu guk haurra izan dedin. Eta orduan haurra gure munduan sartu. Autoritarismoa. Lehendabizikoa baino astakeria handiagoa.

3) Zer behar du izan haurrak. Eta hon-

tara xuxen dedin lagundu. Bere bidetik barna gidatu. Ez dugu gehiagoren egindizunik.

Eta amaitzeko, hona hemen Eskola Berriak, Estetiko-pedagogiaz arduraturik den irakasleari ematen dizkion hamar aginduak:

1.-Heziketak dezala haurra helburu.

2.-Irakasleak dezala ikuspegi zehatza ikaslearekiko, haur bakoitza besteengandik berezia denez eta bere-bere nortasuna duenez.

3.-Ikasleagan ahalmen ~~h~~reatzaileak azkartzea, puntu hauek gogoan edukirik:

-Haurraren pentsamena baloratzea.

-Ideiak eta gauzak erabiltzen akuilukatzea.

-Ideia berrientanako errespetua.

-Begira, haurrari eredu bat ezarri.

-Bere pentsamenaren fruituak estima ditzan haurrari laguntzea.

4.- Haurrari ekintzara eragin: egin erazi

5.- Bizitzara hedatu eskola: deus ez har, inciz, luburutik, bizi den inguruan haurrak aurki baleza.

6.- Esku-lana izpiritu lantzearekin elkarreeraztea.

7.- Eskolatzaile ez-baina, "gidatzaile" izatea.


8.- Haurraren interesak oinarritzat hartzea, gorengo dohainak landu nahi izenik ere.

9.- Bakoitzari bere heinean eman.

10.- Hezitzaileak berak ditezela "bilakari".

Anjel Lertxundik

Loiolan 70 - 8 - an.



V

Azkeneko aldizkarian "Ikastola mugimenduaren oinarri eta helburuak" artikuluan, bi oinarri berezi aipatzen ziren: Euskera eta Pedagogia berria.

Oinarria DEN zerbaiteri deitu lezaiokela uste dut eta ez gure buruan darabilkigun ametseri, "Pedagogia berria" edo "pedagogia bizia" edo "ekintza pedagogia" berriz ikastoletan EZ DA errealitate bat. Ikastola bakarren batean hala da salbuespen bat litzake eta honek ez dauku jeneralizatzeko eskubiderik ematen.

konzepto hauek ez akklaratzek, kalte handia egin lezaiguke Pedagogia berriaren mamia lortua dugulakoan, teknika berrien aplikatze hutsean gelditzeko arriskua dugu, muina gero eta tradizionalagoa bihurtuaz. Geure buruarekin konfiantza gehiegizkoa hartuaz, segurantzi faltsu batean murgiltzekoa ere bai. Pedagogia berria handia den zerbaite dela nabaritzen dugu irakurri dugulako, entzun dugulako, intuizioz... bide honetan iharduteko personalitatea behar dela badakigu korrientearen kontra egin behar delako lana (behar ba da ez dugu horren garbi ikusten

korrienterik maltzurrena geure barrenean darabaguna dela) eta pentsakera berri aurrerakoi baten adierazgarri dela ere bai. Hau dena dakigularik, hori lortua dugula sinesten ba dugu harrokeria handia sortu diteke honela aurreratzeko indarrak paralizatuaz, errealitateaz ez jabetzeak dakarren ezjakintasunak apaltasunik gabeak egiten gaitu-ta.

Aipatutako guztiagatik eta denen gaineratik egia maite behar dugulako batezere, gure errealitatea sakonean den ez bezalakoa hartzeko arriskutik ihesi egin behar dugu, gure egoera ondo definituaz.

Euskera ikastoletako oinarria da, denetan errealitate bat delako. Bigarren oinarria berriz Pedagogia berriaren billaketa bezala definituko nuke nik, gehienen artean, gutxiago edo gehiago errealitatea dela uste dudalako.

Pedagogia berria ikastoletako oinarri izatera heltzea behar luke izan gure helburu nagusia, baina hontara irixteko derriorrezkoa dugu helburu bezala, lortu beharreko bezala ikustea. Errealitate bat bezala ikusten ba dugu eskola berriaren izpirituaz jabetu ez garalarik eskola berria egin dugula esango dugu eta hau egia ez denez gero eurreratu beharrean atzeraka joango gera tradizional giroari jarraituaz.

Pedagogia berriaren izpiritua nabaritzeaz

bakarrik konturatuko gara, bera asimilatze-ko dugun zailtasun ikaragarriaz; beraz, osorik pratikan jartzeko dugun inpotentzia, kasik, baita ere bere edertasunez jabetzen garalarik lortu behar den gauza dela ikusten dugu. Ez da erraza, ez; nunbaiten irakurria, dut ikas-
tolak beren eginkizuna ongi betetzeko derrigo-
rrezkoa duen berritzapena lortzeko, maisu ba-
koitzaren barrenak berriztatu behar duela, gai-
nontzean axaleko aldaketak bakarrik lortuko di-
rela. Egia dela uste dut.

Beraz gure muga handiez jabeturik, ezague-
re honek ematen daukun apaltasunez bilaketa se-
rio batean gogor ari gaitzen, bilaketa-izpiri-
tu hau ikastoletako oinarri iraunkor eta sen-
doa izan dedin. Txantxetako oinarria ez dela
iruditzen zait, ez horixe!

VI

ESKU - LANAK

Loiola-ko lehen ikastaroan landu ziran gai interesgarrienak agertu nahiean gabiltzan hontan ezin ahaztu genezake inolaz ere gai ahu.

Haurra ezer gutxi ezagutzen duena ere ohartzen da, hay zeub ekintzile eta "saltzero" gertatzen den edonon arkitzen delarik ere. Betti dego hola jolastu prest, edozer gauza ezkurutzen duela ere bere irudimen aberatsaz balia-turik, une berean, beretzat jostailu bihur de-zake.

Aipatu dugun ikastaro hortan batez ere praktika aldetik landu genuen gai ahu. Baina ekintza hauek bere teori alderdiaz sendoturik ez badagoz, hau da, honekin haurrak "entretenti-tu" bai, baina bere heziketan zer garrantzi, eta nola zuzendu ez badakigu, ezin genezake lan honen aberastasunaz baliatu.

Hortarako beraz, ikastaldean lan hau zuzen-du zuten bi andereñoak, eskuratu zeuzkiguten honelako argitasun batzuk:

- zein helburu duen haurren esku lanak.
- Haurraren zein ahalmen eta nola lantzen

diran hauen bidez.

- Hontan, irakaslearen egitekoa zein dan.

- Zer nola espresatzen den haurra esku -
lanen bidez.

- Eta adin ez berdinetan erabili ditek-
zenbait material eta tresna, eskaini zeukuten
horri batzuen bidez.

Hontaz interezaturik dagoenak gordailu
etxean arkitu dezazke.

Eta guzti hori gehiago osatzeko, Bibliogra-
fi gisa; liburu hontara zuzendu ginduzam: "Pro-
grama de actividades de los jardines de infantes"
(Edit. Kapeluz 135)

Ad usum privatum.